



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO IRAILAREN 8AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko irailaren 8an arratsaldeko 19:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Esther Lacastaren lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Ricardo Arangoa eta Xabier Azpiroz.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena, Julen Beunza eta Olatz Dorai.

19:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Iharduera ekonomikoa sortzeko gunearen urbanizazioaren I fasea. Obraren behin betiko esleipena.

2022koa abuztuaren 18an bildu zen kontratazio mahaia obraren esleipenerako 3. Gutun azala irekitzeko. Lehenik abuztuaren 4n ireki zuten dokumentazio administratiboa eta proposamen teknikoa.

Behin behineko esleipena Lakita SA enpresaren aldekoa egin zuen kontratazio mahaiak, balorazio altuena izan zuelako. Hortaz 2018/2 kontratu publikoen foru legearen 100. Artikuluaren arabera, 342.185,24 euroko aurrekontuarekin (BEZ kanpo), obraren berme-epea 72 hilabetekoa izanik, agirian ezarritako hasierako 3 urteekiko, eta Enplegu Zentro Bereziekiko azpikontratazio-konpromisoa esleipen-aurrekontuaren % 15ekoa izanik..

Behin behineko esleipenaren epea bukatu ondoren 10 egun naturalekoa, behin betiko esleipena egin ahal da alegaziorik aurkeztu ezean., horrela agintzen du 2018/2 Nafarroako KONtratu PUBlikoen Foru Legearen 101. Artikuloak.

2018/2 Kontratu Publikoen Foru Legearen 100. Artikuluak arautzen du kontratua, irekiera publikoa egiten den egunetik hilabeteko epean sinatu behar dela eta hala ere arautzen du obraren baldintza pleguak. Hortaz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzendute:

.- Behin betikoz esleitzea Basaburuan iharduera ekonomikoen gunea sortzeko urbanizazioaren 1 fasea Lakita S.L enpresari 342.185,24 euroko aurrekontuarekin (BEZ kanpo) , obraren berme-epea 72 hilabetekoa izanik, agirian ezarritako hasierako 3 urteekiko, eta Enplegu Zentro Bereziekiko azpikontratazio-konpromisoa esleipen-aurrekontuaren % 15ekoa izanik..

-Onartzea ere enpresarekin sinatu beharreko kontratua eta ahalmentzea Basaburuko Alkatea den Esther Lacasta Perez Ilzarbe, enpresarkin sinatu beharreko obra kontratua sinatzea.

- Erabaki hau esleipendunari eta obra lizitazioan parte hartu duten guztiei jakinarazi.

Xabier Azpirozek azaltzen du obra hau egiteko Nafar Gobernuako Industria Departamentuko laguntza bat eskatu dela, baina kontutan hartuta terrenoen titularitatea oraindik kontzejuaren esku dagoela, ez dute onargarrizat ematen laguntza eta kontutan hartuta hurrengo urtean ere laguntza berdina aterako dela eta aukera asko izango dituela Basaburuko Udalak laguntza hori jasotzeko, aurtengo deialdiak bezala balorazio altua izango duelako proiektuak, bertan behera uzteko eskaera egitea adostu zuten bi aldeek, udalak eta Industria Departamentuak. Bitarte honetan notaritzan egingo dira titularitatea aldatzeko eskriturak eta legez dirulaguntza berriro eskatzeko aukera izango du udalak. Nahiz eta urrats hau emanda ez egon, obrak hasteko ez dago arazorik, bai kontzejuko bai ondoko lursailtako jabeen baimena jaso delako idatziz.

Diru laguntza bertan behera gelditu denez eta hurrengo deialdian zuzen sartu ahal izateko, obrak urriaren 1etik aurrera hasi beharko lirateke eta hau ere jakinaraziko zaio Lakita enpresako ordezkariari.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:00 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.